



Lurrezko eltzea

Eltzegile bat azokara badoa, astoa lurrezko eltzez kargaturik.
Oihanetik iragaitean, eltze bat asto gainetik lurrera lerratzen zaio.
Adio eltze borobil potoloa! Adio eltze ederra!

Han gelditzen da eltzea bide bazterrean, belarrean gordea.

5 Arratsalde hartan berean otso bat heldu da : otso abila bezain gosea.

Otsoak eltzeari artoski behatzen dio ; itzultzen du, alde guzien ikusteko.

– Zer da hori? Ez da jateko on... biziki gogorra da... Zer egiten
10 ahal da honetaz? – pentsaketa hasten da – A... haragi goxoz betea balitz! Pata luzatzea aski nuke eta bazkaria egina prest nuke!

Orduan otsoak ontziaren gainean hauxe idazten du :

ETXE HONEK JABERIK EZ DU

15 Gaztainondo baten gibelean gordetzen da, begiak erne, eltzeari begira.

Hara non urtxintxa hurbiltzen den. Eltzeari ohartzen zaio; irakurri eta, gora-gora erraiten du:

– Etxe hau hutsa dela... enea izanen da!

Eta eltzean sartzen da. Otsoa, zuhaitzaren gibeletik, irriz.

Ondotik, erbi bat heldu da. Eltzea ikustean, hura ere gora-gora: 20

– Etxe polit hau enea izanen da!

Eta eltzean sartzen da.

Handik laster oreinaren aldi da.

– Zer etxe handia! Enea izanen da!

Eta hori ere barnera. 25

Oi haragi goxo hori! Zein gose den gure otsoa!

Azkenik han gaindi dabilen **oilagorra** ere eltzean sartu zen, hura ere duda-muda izpirik izan gabe.

Gure otsoa guziz alegera:

– Eltzea bete-betea dut! Zer bazkari goxoa egingen dudan! Zertarik hasiko naiz? Urtxintxatik? Erbitik? Oreinetik ala oilagorretik? 30

Pentsaketa zegoela, hartza bidean ikusten du, hori ere eltzera buruz heldu.

– Zer da izkiriaturik? Ez dut ongi ikusten. Non ditut betaurrekoak? Sakela honetan ote? Ez! Bestean?... 35

Hobeki bilatzeko, eltzearen gainean jartzen da... eta orduan krrrask! eltzea mila pusketan hausten da. Hartza itzulipurdika lurrera doa. Urtxintxa, erbia eta oreina lasterka, punpeka, oiha-nean sartzen dira eta oilagorra airatzen.

Eta gure otsoa, otso abila bezain gosea... tripa hutsik gelditzen da. 40
Ea urrunxeago bazkariteko zerbait harrapatzen duen!

oilagorra: hegazti zangaluzea. Ihizatzen da, haragia oso ona duelakotz. Pekada.

Armand Colin argitaletxeko *Histoires et dialogues* liburutik egokitua.






1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zergatik idatzi zuen otsoak "Etxe honek jaberik ez du" ?
- Animalia batzuk eltzean sartu dira : zein ?
- Zer erran du urtxintxak ? erbiak ? oreinak ? oilagorrak ? hartzak ?
- Otsoa guziz alegera da. Zergatik ? Eta gero zergatik ez da gehiago hala ?
- Nola segurtatu behar zuen otsoak bazkaria ?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Zuhaitzak doakien fruituaren arabera izenda (ikus marrazkien azpiko zerrenda).



sagarrondo - intxaurrondo - madari - gerezi
intxaur - madariondo - gereziondo - sagar

► Hitz berriak sor itzazu **-zain** edo **-gile** atzizkiak erabiliz.

bizkar

ate

lan

senda

haur

baratze

egur

eltze

diru

herri

bide

oihan

► Ereduari begiratu zer lerroak osa itzazu.

Lurrez egiten da

Zurez egiten da

Larruz egiten dira

Burdinaz egiten da

...*Lurrezko* | eltzea.

..... mahaia.

..... oinetakoak.

..... tresnak.